# Xedapen Orokorrak

## LEHENDAKARITZA, LEGE ARAUBIDE ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA

**2997**

327/1994 DEKRETUA, uztailaren 28koa, beren zerbitzuan dagoen langilegoarentzat Euskal Administrazio Publikoek eskaintzen dituen gizarte-prestatzioak arautzeko dena.

Uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 69.1 atalak agintzen du, funtzionariei dagozkien eta lege horretan jasotzen diren eskubideak bermatu egingo dituztela Euskal Administrazio Publikoek. Aitortzen diren gizarte-prestazioak eskubide horien artean jasotzen dira(69.2.g) atala).

Beren izaera dela bide, lan baldintzen akordioetan adierazten diren zenbait neurri ezberdin izan ezik, alderdi hori oraindik garatu ez denez, hori garatzea beharrezkoa da legean agintzen denaren norainokoa argituz, bere edukina zehaztea geroko bere araubide-garapenari lotzen baitio lege horrek.

Garaiko eta tokiko gora-beheren arabera, gizarte-prestazio horien norainokoa aldakorra izan daitekeenez, behar adinako zabaltasuna izango duen arauketa bat ezartzea komeni dela dirudi, horrela, prestatu ahal diren gizarte-prestazioen artean, beren esparru zehatzari ondoen egokituko zaiona arautzea ahal izango dutela administrazio bakoitzeko kudeatzaileek.

Ondorioz, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1994ko uztailaren 28an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe,

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.*– Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 69.2.g atalak aipatzen dituen gizarte–prestazioak, horien artean sar daitezkeela aseguruak eta lan-ordainketen aurreratze eta itzultze sistemak edo izaera bereko besteak ere, lege horren erabiltze-eremuan sartzen diren euskal administrazio publiko bakoitzean eskuduntzadun den organoak arautuko ditu.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadineko egunaren biharamunean hartuko du indara dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1994ko uztailak 28.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lehendakaritza, Lege Araubide
eta Autonomi Garapenereko sailburua,
JOSEBA M. DE ZUBIA Y ATXAERANDIO.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA, RÉGIMEN JURÍDICO Y DESARROLLO AUTONÓMICO

**2997**

DECRETO 327/1994, de 28 de julio, por el que se regulan las prestaciones sociales de las Administraciones Públicas Vascas para el personal a su servicio.

El artículo 69.1 de la Ley 6/1989 de 6 de julio establece que las Administraciones Públicas Vascas garantizarán los derechos inherentes a los funcionarios recogidos en la misma Ley. Entre tales derechos se contemplan las prestaciones sociales que se reconozcan (Art. 69.2.g).

Como quiera que no ha sido desarrollado este aspecto, salvo por lo que se refiere a diferentes medidas que se enumeran en Acuerdos de Condiciones de Trabajo dada su naturaleza, procede desarrollarlo, aclarando el alcance lo preceptuado en la Ley, que supedita la determinación de su contenido a su posterior desarrollo reglamentario.

Toda vez que el alcance de las citadas prestaciones sociales pueda ser variable en su contenido en función de circunstancias tanto temporales, como propiamente locales parece conveniente establecer una regulación que sea suficientemente amplia, que a su vez posibilite que los gestores de cada Administración regulen de entre la prestaciones sociales posibles las que mejor se acomoden a su concreto marco.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión de 28 de julio de 1994,

DISPONGO:

*Artículo único.*– Las prestaciones sociales a que se refiere el artículo 69.2.g de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, entre las que podrán incluirse tanto seguros como sistemas de anticipo y reintegro de remuneraciones u otras de similar naturaleza, serán reguladas por el órgano competente de cada una de las Administraciones Públicas Vascas incluidas en el ámbito de aplicación de la citada Ley.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de julio de 1994.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Presidencia, Régimen Jurídico
y Desarrollo Autonómico,
JOSEBA M. DE ZUBIA Y ATXAERANDIO.